

EUSKALTEGIEN TXOKOA 32. ZENBAKIA

# Hernaniko Udal Euskaltegia



# Ikasle artista dugu gelan!

Zilarrezko bitxiak egiten dituen hernaniarra dugu gaur hemen, Ziku Armendariz. Baina bitxigintzaz aparte, beste hainbat arlo ere lantzen ditu: yoga, dantza afrikarrak eta gitarra.

## Nondik sortu zitzaizun bitxiak egiteko grina?

Oso gazte nintzela, 19 urterekin, motxila hartuta, Mexikora joan nintzen bizitzera. Bertan, artisaubidaiari asko topatu nituen bidean eta haiek erakutsi zidaten lanbidea. Pixkanaka-pixkanaka, zilarrezko bitxiak lantzen hasi nintzen eta Zikumaya marka sortu nuen. Zortzi urtez bizi izan nintzen lurralde hartan eta esperientzia biziki ona izan zen, bai profesionalki, bai pertsonalki; izan ere, bi arlo horietan hazi eta garatu nintzen.

## Zertan ari zara orain?

Hiru proiektu ezberdinetan nago sartuta orain: Ziku bitxiak, Euskal Herrian nik sortutako marka: bertan, zilarrezko bitxiak diseinatu, sortu eta merkaturatzen ditut. Horrez gain, Samba badago taldean gitarra jotzen dut eta bigarren ahotsa egiten dut. Eta, azkenik, yoga irakasle aritzen naiz, Hernaniko zentro batean.

## Zer da eta non sortu zen Samba badago?

Musika talde bat da, bertan lau partaide gaude, Hernani, Lasarte eta Donostiakoak. Guk sortutako abestiak eta gustatzen zaizkigun brasildar doinuak jotzen ditugu. Orain dela hamar urte, taldeko bi kide - Hanni eta biok- Hernaniko Portu auzoan, etxeko sukaldean, maite genituen abestiak jotzen hasi ginen eta hori izan zen taldearen sorburua: Duo do Portu. Gerora, perkusionista sartu zen eta Trio do Portu bihurtu ginen; aurrean, zeharkako flauta jotzailea gehitu zaigu eta berak asmatu du gure oraingo izena: Samba badago.

## Non ikasi zenuen yoga eta noiztik zabilta irakasle lanetan?

Zaragozan ikasi nuen, 2015etik 2017ra. Geroztik, egunero praktikatzen dut eta aurrean klaseak ematen hasi naiz, Hernanin. Kundalini yoga modalitatea praktikatzen eta irakasten dut.

## Zein berezitasun dauka yoga modalitate horrek?

Indian du jatorria eta gorputz barruan daukagun energia sortzailea da kundalini. Energia hori gure bizkarrezurraren oinarrian lokartuta daukagu; eta, kundalini yoga praktikak, teknika desberdinen bidez, lokartuta daukagun energia esnatzen laguntzen du. Era berean, energia esnatzean, kontzientzia eta sormena hobetzen ere laguntzen du. Beste hitz batzuetan esanda, geure burua eta ingurunea hobeto ezagutzen laguntzen du.

## Aipatu dituzu teknika ezberdinak. Zein dira horiek?

Lehenengo teknika: Asanen bidez -gorputzak hartzen dituen postura jakin batzuk-, gorputzaren eta buruaren malgutasuna, oreka eta indarra lantzen da. Bigarren teknika: Pranayama izeneko arnasketa teknikaren bidez, arnasketan jartzen da arreta eta horren bidez onura asko lortzen dira: garuna lasaitu, biriken gaitasuna hobetu, odola oxigenatu..., hau da, bizi organoak hobetzen dira.

Hirugarren teknika: Mantrak. Zer dira mantrak? Etengabe errepikatzen diren formulak dira: silaba batekoak, hitz batekoak edo esaldi batekoak izan daitezke. Silaba, hitz edo esaldi horiek behin eta berriz errepikatzen direnean, kantu bidez, pertsonak kontzentrazioan sarkontzen du eta meditazio egoera batean sartzen da; bide batez, pentsamenduaren kalitatea hobetu egiten da.

## Orain Hernaniko Udal Euskaltegian zabilta. Zer dela eta?

Nire asmoetako bat da, noizbait, irakaskuntzaren munduan sartzea eta hor aritzeko ezinbesteko da tituluren bat izatea. Baina titulua eskuratzea ez da nire helburu bakarra; izan ere, nire ametsetako bat da txukun eta argi idazten ikastea: barruan dudan hori azaleratzea eta hitzez ongi adieraztea, bai mezuak idazteko, bai goiburu erakargarriak eta deigarriak sortzeko. Horiek lortze aldera eman dut izena euskaltegian, eta oso gustura nabil bertan.



Ziku Armendariz

## Nora jo behar du zurekin harremanetan jarri nahi duenak?

Bitxiak eskuratu nahi dituenak nire web orrira jo dezake: [www.zikubitxiak.com](http://www.zikubitxiak.com)

Yoga klaseak jaso nahi dituenak nire Instagramemen izango du informazioa: [kavita\\_ziku](https://www.instagram.com/kavita_ziku)

Musika taldearen Instagrameko perfila honako hau da: [sambabadago](https://www.instagram.com/sambabadago).

Egileak: C1 mailako taldea:  
Ziku Armendariz Illaramendi  
Leire Bilbao Agirrebengoa  
Ana García Merino  
Belen Hernando Barran  
Sarai Inchausti Azurmendi  
Marian Irigarai Carmona

Euskal zinema-zuzendaria udal euskaltegian  
Andres Daniel Sainz:

## «Euskaraz ere gidoiak idatzi nahi ditut»

Andres Daniel Sainz donostiarra da eta urte asko Frantzian bizi ondoren, Hernanira etorri da bizitzera. Zinema zuzendaria da. Orain, euskara ikasten ari da Hernaniko Udal Euskaltegian. Proiektu asko ditu eskuartean. Momentu honetan, pelikula bat idazten ari da eta herrian zinekluba jarri du martxan Gaizka Izagirrerekin batera. Etapa berri batean dago.

### Non egin dituzu zinema ikasketak?

Zinema ikasketak Parisen egin ditut, Paris VIII eta Paris III unibertsitateetan, Sorbonan.

### Noiz etorri zara Hernanira bizitzera? Zergatik etorri zara Hernanira bizitzera?

Duela lau urte eta erdi etorri nintzen Hernanira bizitzera, Hernani bizitzeko asko gustatzen zaidalako.

### Zergatik erabaki duzu zinema zuzendari izatea?

Txikitatik zinema gustatzen zaidalako. Hasieran, zinema-kritikaria izan nahi nuen, baina zinema ikasten hasi nintzenez, idaztea eta filmak zuzentzea gustatzen zait.

### Zer zinema mota gustatzen zaizu?

Dena gustatzen zait. Zinema ona gustatzen zait.

### Zenbat pelikula egin dituzu?

Gutzira zazpi egin ditut. Film luze bat "Escuchando Niño futuro", eta bost edo sei film motz.

### Nolako pelikulak egin dituzu?

Film motzak oso desberdinak dira. Adibidez, komedia, politika, fikzioa... Film luzea, berriz, ez da komertziala. Film dokumental esperimentalak da.

### Nolako istorioak kontatu nahi dituzu pelikuletan?

Momentu honetan, hainbat proiektu ditut idatzita eta finantziariozko bila gabiltza produktore batekin. Orain, proiektu berria daukat; baina, oraindik, idazten ari naiz. Hernani du izena eta polizia-filma da.

### Saririk irabazi al duzu?

Bai, film-motzekin sariren bat edo beste irabazi dut. Adibidez, For the good times film-motzarekin sari asko irabazi ditut, bai hemen, bai kanpoan.

### Zein zinema zuzendari gustatzen zaizu?

Askok gustatzen zaizkit. Adibidez, Howard Hawks, Alfred Hitchcock, Chris Marker, Victor Erize...

### Hernanin Hernani Zinekluba jarri duzu martxan Gaizka Izagirrerekin. Zergatik jarri duzue martxan?

Hernanin zineklubik ez dagoelako eta, gure ustez, oso interesgarria da egotea. Gaizka Izagirre Gaztezulo aldizkariko zuzendaria da, eta biok Udaleko arduradun batekin hitz egin genuen eta gure proiektua onartu zuten.

### Zenbat denbora darama martxan Hernani Zineklubak?

Urriari hasi ginen. Azaroan bigarrena egin genuen eta, orain, abenduaren 13an, hirugarrena izango da. Paterson pelikula jarriko dugu. Jatorrizko bertsioan izango da, eta azpituak euskaraz azalduko dira. Umeentzat ere saio berezia egingo dugu abenduan. Pelikula bat jarriko diegu euskaraz. 2024an ere hilean behin edo bitan izango da.

### Zein egunetan, non eta zein ordutan ikus daitezke pelikula horiek?

Abendura arte asteazkenetan edo ostegunetan izango da, eta 2024an ostegunetan. Arratsaldeko zazpietan izango da, Biteri kultur etxean eta 3 euro balio du.

### Zein pelikula mota jarriko dituzue Hernani Zinekluban?

Denetik. Klasikoak, komertzialak, euskal zinema eta autore-zinema. Pelikulak jatorrizko bertsioan jarriko ditugu eta beti azpituak izango dituzte. Hilabete batean azpituak euskaraz izango dira eta hurrengo hilabetean, berriz, gaztelaniaz. Pelikula zuzendariak ere emakumezkoak eta gizonezkoak izango dira.



Andres Daniel Sainz

### Zergatik ikasi nahi duzu euskara?

Donostiarra naizelako. Gure etxean ez da inoiz euskara hitz egin eta nik ikasketak gaztelaniaz egin ditut. Euskara ikasgai zen. Gainera, 19 urte Frantzian egon naiz eta euskara galdu dut.

### Baduzu asmorik pelikularen bat euskaraz egiteko?

Bai. Badaukat proiektu bat erdia

euskaraz eta beste erdia gaztelaniaz; baina, momentuz, ez dut bukatu. Orain, Hernani proiektuarekin nago.

### Zaila iruditzen al zaizu euskara?

Tira... Hiru hizkuntza hitz egin ditut eta euskara oso desberdina da. Nire ustez, zaila da euskara ulertzea, baina zailagoa da euskaraz hitz egitea.

Egileak: A2 mailako ikasleak

# Jose Luis Gomez: «ikusleen txaloak entzun eta sentitzea bezalako drogarik ez dago»



Ikusleen txaloak lehen aldiz Bordelen entzun zituen *Tres sombreros de copa* antzezlanarekin. Geroztik, antzeztea izan du zaletasun Jose Luis Gomez gure ikaskideak. Segidan duzue hari egindako elkarrizketa. Espero dugu guri bezain interesgarria iruditzea zuei ere.

## Nor zara zu?

Jose Luis, hernaniarra, erretiratu eta orain urte gutxira arte irakaslea izandakoa. Antzerkia gustukoa dut oso, baina ez naiz profesionala izan.

## Nondik datorkizu zaletasuna?

Bordeleko Lycée Technique-n eta Lycée hôtelier-en irakasle ibili nintzen, eta neure zereginetarako denbora dezente nuenez, ondoko unibertsitatera joan nintzen. Eta, ezustean, antzezlan bat antolatzen ari ziren, *Tres sombreros de copa* izena zuena, eta parte hartzeko aukera eskaini zidaten. Hernanira itzuli nintzanean, hemen ez zegoen tailerrik edo horrelakorik, handik 2 edo 3 urtera antolatu zituzten tailer batzuk. Orduan, marrazkigintzan eman nuen izena, antzerki tailerlean taldea sortu zuten arte.

## Zerk erakarri zintuen antzerkitik? Eta zerk bultzatu

## bertan jarraitzea?

Ordu libre asko nituelako joan nintzen, eta zerbait egiteagatik. Gainera, txaloek drogak baino menpekotasun handiagoa eragiten dute, jasotzen dituzu eta berriz entzun nahi izaten dituzu. Horregatik, txaloak izan ziren bertan jarraitzeko arrazoi nagusia.

## Badakigu faringitis kronikoa duzula. Ohikoa izaten al da antzezleen artean gaitz hori?

Ez dut uste. Nik esango nuke irakasleen artean zabalduagoa dagoela, ordu gehiegi ematen baiituzte ahotsa behartzen.

## Azaldu i(eza)guzu zein izan den zure ibilbidea? Noraino eraman zaitu zure zaletasun kuttunak?

Profesionala ez naiz izan, zalea edo amateurra baizik. Ruth Martin zenak, nire irakasleak, dakidan guztia irakatsi zidan. Irakasle bikaina izan nuen. Eta,

gainera, egundoko zortea izan nuen, Goenkalen ere atera nintzen eta.

## Izan al duzu inoiz beldurrik? Zeri? Zergatik?

Bai, noski. Testua ahazteko beldurra izatea oso ohikoa izaten da antzezleen artean, eta nik sekulako beldurra nion benetako amesgaizto horri.

## Zein izan da zure momenturik politena, ederrena? Eta txarrena?

Politena, esaterako, hemen herrian bertan San Joan Jaien Preludioan egin genuen oroitzapena da. Enparantzan izan zen, eta bertan, musika ezin zoragarriagoa, abeslari bikainak eta abesbatza zinez ederra gogortzen ditut; eta, jakina, herriko eta gertuko jendea.

Txarrena, ordea, Donostian *Tres 60* filma grabatu genuenean izan zen, grabaketa egunean ordu gehiegi itxaron behar izan nituen nire zatia egin bitartean. Eta, gainera, gero estreinaldian agertzen ere ez nintzela konturatu nintzen!

## Zein izan da egindako antzezanik gustukoena?

Bada, egin dudan antzezanik gustukoena lehendabizikoa izan zen: *Tres sombreros de copa*.

## Baduzu maniarik antzezteko orduan? Ohitura bitxirik, berezirik?

Bai, gidoia txikia denean, poltsikoan edukitzeak lasaitasuna ematen dit, nahiz eta badakidan ezin dudala begiratu.

## Zer sentitu zenuen eszenatoki batera igo zinen lehen aldian?

Igotzean bat ere ez, hori bai, bukaeran txaloak oso gertutik sentitu nituen, zirrargarria izan zen oso.

## Zein teknika edo estrategia erabili izan dituzu antzeztean hasi aurretik?

Antzokira garaiz iritsi behar izaten nuen nahitaez, autobusaren atzerapenak saihesteko, eta horrela, lasai eta patxadaz sentitzeko. Horrez gain, isiltasuna behar-beharrezkoa izaten nuen, beste pertsonekin hitz eginez gero, zeharo urduri jartzen nintzen eta.

## Zein da gehien gustatu zaizun antzokia? Zergatik?

Hainbat antzoki ezagutu ditut, besteak beste, Bilboko "Campos Eliseos", Donostiako Antzoki Zaharra, Victoria Eugenia Antzokia, Okendo Kultur Etxea eta Hernaniko Kultur Etxea. Dena den, antzokirik gogokoena, zailantza izpirik gabe, Bilboko Campos Eliseos da, oso handia baita

eta zinez dekorazio ederra baitu. Oso gustura sentitu nintzen antzoki hartan.

## Nola bizi duzu zure zaletasuna?

Kristoren grinarekin eta pozarekin. Baina, zoritxarrez, ez nintzen profesional izatera heldu.

## Eta bukatzeko, pasadizorik, bitxikeriarik, zeozer gogoangarririk?

Antzezan baten erdian ari nintzela, ohe tolesgarri baten gainean, hankak bat-batean tolestu eta ziplo erori nintzen lurrera. Baina, ikuskizunak jarrai dezala!

Bordelen hasi eta urte luzez iraun du Jose Luisek antzerkiarekiko duen zaletasunak, baina bizimodua irakasle lanak egitetik atera du aurrera; hori bai, bere pasioa ez du sekula alde batera utzi. Gainera, txaloen gozoa, hamaika bidaia eta Bilboko Campos Eliseos antzoki zoragarria ere ezagutzeko aukera paregabea izan du.

Mila esker, Jose Luis, tarte hau eskaintzeagatik, plazer handia izan da. Eta ikuskizunak jarrai dezala!

Egileak: CI maila\_1